

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

HeliNET mugaz bestaldeko proiektuak lehenbiziko jardunaldia egin du Donostian

Nafarroako Gobernuaren eta Nasuvinsaren arduradun eta teknikariek larrialdietako koordinazioaren aspektu ezberdinak landu dituzte haien bazkide-ordezkariekin

Asteartea, 2018.eko azaroak 20

Nafarroako Gobernuaren Babes Zibileko Zerbitzuak koordinatzen duen Europako HeliNET proiektuak mugaz bestaldeko lehenbiziko jardunaldia egin du Gipuzkoako Parke Zientifiko eta Teknologikoan, Miramonen (Donostia), larrialdietako koordinazioaren aspektu ezberdinak jorratzeko helburuarekin.



Partehartzaileak jardunaldiaren uneetariko batean.

Proiektuak, kideen artean Nasunvisa Lurzoruaren eta Etxebizitzaren Nafarroako enpresa publikoaz aparte Eusko Jaurlaritzaren Osakidetza Larrialdiak eta Pirinio Atlantikoetan SAMU 64A (Baionako Euskal Kostako ospitaleko larrialdietako arreta medikoko zerbitzua) dituenak, Pirinioen bi aldeetako administrazioetako organismo ezberdinak biltzen ditu.

HeliNET proiektuak mugaz bestaldeko lankidetzaren sarea sortzea eta antolatzea du xede, larrialdi-, erreskate- eta katastrofe-egoeretan arriskuak eta elkar laguntzeko misioak batera kudeatzeko, helikopteroen erabilera sustatzearen bidez.

Bi helburu lortu nahi dira: batetik, asistentziarako, erreskateko edo sorospenerako helikopteroek lur har dezaten azalaren sarea hobetzea, eta, bestetik, Nafarroako, Euskadiko eta Pirinio Atlantikoetako zerbitzuen artean erantzun koordinatua eta integratua planifikatu, antolatu eta probatzea.

Proiektuak Europar Batasunaren FEDER funtsak jaso ditu Interreg POCTEFA 2014-2020 programaren bidez (Espainia, Frantzia eta Andorraren arteko Lurralde Lankidetzarako Programa Operatiboa). Larrialdietarako kudeaketa-eremu horren barruan dago ALERT proiektua ere, Nafarroako Suhiltzaileak tartean dituenak.

Nafarroako bost hizlari

Jardunaldiko programan lau mahai-inguru zeuden aurreikusita, bi goizez eta beste bi arratsalde, eta haietan Nafarroako bost ordezkari

aktiboki parte hartu dute, Akitania Berriko, Euskadiko eta Kataluniako beste ordezkari batzuekin batera. Agustín Gastaminza barneko zuzendari nagusiak moderatzaile-lanak egin ditu "giza faktorea mugaz bestaldeko koordinazioan" izeneko hitzaldietan.

Kiko Beteluk ospitalez kanpoko larrialdietako zerbitzuburuak, larrialdietako agentzietan dauden zailtasunak eta hobetu daitezkeen eremuak aztertu ditu, haien arteko koordinazioa hobetze aldera.

Nafarroako bi teknikariek eman diote hasiera arratsaldeko jarduerari, "materialen eta tekniken estandarizazioa bilatuz" izenburuaren pean. Unai Garbisuk Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiko telekomunikazioetako ingeniariak mugen artean larrialdietako komunikazioen arteko arazoei eta haiei eman diezazkieketen konponbideei buruz hitz egin du.

Javier Madozek Nasuvinsako Informazio Geografikoko Sistemetako ingeniariak heliazalaren kokapenak geokokapenaren eta Informazio Geografikoko Tresnen (GIS) bidez hautatzeari buruz hitz egingo du.

Aurreikusita dago jardunaldia 18:45ean amaituko dela, "katastrofearen esku-hartze koordinatua" izeneko mahai-inguruaren ostean. Bertan, Patxi Fernándezek Babes Zibileko segurtasuneko goi-teknikariak azalduko digu biktima askoko gertakarietan Nafarroako Gobernuak zer prozedura jarraitzen duen.

HeliNET proiektuak udaberrian bigarren jardunaldia egiteko asmoa du, Iruñean.